

IRAKASKUNTZA-GIDA

2013/14

Ikastegia

160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25951 - Gizarte Errealitateen Behatokia

ECTS kredituak: 6

GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

DESKRIPZIO LABURRA:

Irakasgai honek, Gizarte Langintzaren ikergai diren populazio sektore nagusien bitartez, errealitate sozialari, hots, fenomeno eta arazo sozialei hasierako gerturaketa egin nahi die.

Gizarte sektore eta kolektiboen ikerketak hurbilketa teoriko-diagnostikoa ekarriko du. Aldi berean, talde-lana eta komunikazio (ahozko eta idatzizko) gaitasunak landuko dira.

GAITASUNAK:

- Errealitate soziala kritikoki aztertzea, giza-problematikak identifikatu eta aurreikusi ahal izateko.
- Gizarte-langintzak hartzen dituen biztanleria-sektore eta kolektibo nagusien ezaugarriak eta elementu bereizgarriak ezagutzea eta identifikatzea.
- Informazio iturri ezberdin eta IKTak (informazio teknologia berriak) erabiliz, hurbilketa diagnostikoko lan teoriko bat gauzatzea eta idaztea.
- Informazioa laburbiltzea, arrazoiketa norabideak (hildoak) garatzea eta argudiaketa bati eustea.
- Zuzentasunez mintzatzen eta idazten jakin.
- Hasnarketa esparru eta analisirako tresna moduan talde-lanean aritzen ikastea.

GAI ZERRENDA

- I. Lantalde trebetasunak.
- II. Ahozko eta idatzizko komunikazio trebetasunak. Diskurtso eta argudioen eraikuntza. Iturri bibliografikoen erabilera. IKT-en erabilera.
- III. Zeharkako ildoak hurbilketa teoriko-diagnostikoa egiterakoan: genero ikuspegia, kultura artekotasunaren ikuspuntua, hiri eta landa eremuen zehaztasunak eta giza eskubideak.
- IV. Gizarte - diagnosi hurbilketa. Arazo sozialak: kausa eta efektuak. Arazoen zuhaitza.
- V. Gizarte sektore eta egoera sozial zaurgarrietan dauden kolektibo nagusiak. Hurbilketa teoriko eta diagnostia:
 - a) Familiak, haurtzaroa eta gaztetasuna.
 - b) Emakumeen kontrako genero indarkeria.
 - d) Adinduak.
 - e) Gaixotasun kroniko edota minusbaliotasunak dituztenak (fisiko, psikiko edota zentzumenekoak)
 - f) Menpekotasunak dituztenak.
 - g) Etorrinak.
 - h) Talde etnikoak.
 - i) Giltzapeturik dauden eta egon direnak.
 - j) Sexu orientazioak direla medio gutxiagotutako kolektiboak.
 - k) Arriskuan edo gizarte-bazterketa egoeran daudenak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	22,5		67,5						

Legenda:

M: Maistrala S: Minteaia GA: Gelako p. GL: Laboratediko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

Argibideak:

Klase magistral edota teorikoak.

Klase hauek ikasgaiarekin lotuta dauden ezagupenen (kontzeptuak, teoriak, modeloak, eta abar) jabetzean oinarritzen diren gaitasun intelektualak edo kognitiboak (jakitea) bultzatzera bideraturik daude. Aldi berean, klase hauek arrazoimendu kritikoa eta beste zeharkako kompetentziak (analisi, sintesi eta aplikazioa) bizkortzen dituzte.

Gelako praktikak eta talde-lanak.

Eskola hauek kompetentzia metodologiko eta jarreraren ikasketarako dira (egiten jakin eta izaten/egoten jakin). Garapen praktikoa eta ezaguera teoriko-praktikoen aplikazioa bultzatzen dute; mintzaera, idazkera eta IKT-en erabilera hobetzen dituzte; kooperatiboki lan egiteko behar diren trebetasun eta gaitasun pertsonalak bultzatzen dira; eta iturri ezberdinetako informazioaren gestioa eta lanaren organizazioa eta planifikazioaren hobekuntza eragiten dute.

EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Banakako lanak
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

Argibideak:

Ikasgaiaren ebaluazio sistemak bi aukera ezberdin eskaintzen ditu.

A) EBALUAZIO JARRAIA (asteroko klasera etortzen diren ikasleentzako bakarrik)

3 edo 4 kideko taldetan, lan teoriko bat egingo da, non biztanleria sektoreetara hurbilpen diagnostikoa egingo den. Irakasleak talde bakoitzari biztanleri sektore bat esleituko dio; taldeek klase aurrean aurkeztuko dute lana, eta aurkezpenaren ondoren sortuko den eztabaidaren dinamizazioa egingo dute. Esleipena egiteko, taldeek kurtsoaren bigarren astean gehien interesatzen zaien 3 biztanleri sektoreak irakasleari idatziz (eta preferentziak izendatuz) adieraziko diote.

Taldeak klase aurrean aurkeztuko du egindako lana eta klaseko eztabaida piztu eta dinamizatuko du.

Talde lanak egiteko gutxienezko derrigorrezko dokumentazioa eskatzen da. Informazio iturriak ongi aipatu behar izanen dira bai testuan zehar bai bibliografiaren atalean. Lan bakoitzean eskatuko den gutxienezko dokumentazioa honakoa izanen da:

-  Lan teorikoa: biztanleri sektore batekin erlazionatzen den arazo sozial baten diagnosi hurbilpena (kausak eta ondorioak)
-  Sektore hori ikasteko moodle-n ipiniko den derrigorrezko irakurgaia.
-  Ikasleak bilatutako ikerketa-artikulu bat.
-  Ikasleak bilatutako txosten, diagnosi edo plan sektorial bat, administrazio lokal edo estatu-mahian egindakoa.
-  Ikasleak bilatutako liburu edo liburu baten atal bat.
-  Biztanleri sektorearekin lotuta prentsan agertu diren artikuluak.
-  Dokumentazio gehiago erabiltzen bada, aintzat hartuko da.

B) EBALUAZIO EZ JARRAIA

Ikasleak azterketa bat eta lan bat egingo ditu. Azterketa derrigorrezko irakurgaiei buruzkoa izango da. Lanean biztanleri sektore bati buruzko hurbilketa diagnostikoa egingo du. Ikasleak aske aukeratuko ditu sektoreak.

Lanean eskatuko den gutxienezko dokumentazioa honakoa izanen da (biztanleri sektore batekin erlazionaturiko arazo sozial baten diagnosi hurbilpena -kausak eta ondorioak-):

-  Sektore hori ikertzeko moodle-n ipiniko da derrigorrezko irakurgaia.
-  Ikasleak bilatutako ikerketa-artikulu bat.
-  Ikasleak bilatutako liburu edo liburu baten atal bat.
-  Ikasleak bilatutako txosten, diagnostia edo plan sektorial bat, administrazio lokal edo estatu-mahian egindakoa.
-  Biztanleri sektorearekin lotuta prentsan agertu diren artikuluak .
-  Dokumentazio gehiago erabiltzen bada, aintzat hartuko da.

BI EBALUAZIO SISTEMENTZAT (jarraian eta ez jarraian)

Gehienez, lanak 10 orrialdeko luzaera izanen du (azala, aurkibidea, bibliografia eta eranskinetaz gain). Lanen idazkerak irakasleak eskatutako estilo eta formatua bete behar du (indizea, orrialde zenbakiak, bibliografia eta abar). Arauak ikasgela birtualean erabilgarri egonen dira. Lanak inprimatuta entregatuko dira. Ez dira e-mailez onartuko.

Lana entregatzeko epeak:

• Klase aurrean aurkezteko lana: aurkezpenaren egunean, aurkezpenaren pdf bat entregatuko da.

• Lan teorikoak: klaseko azken eguna (abendua 19).

• Epea pasa ondoren ez dira lanik jasoko.

• Ebaluazio jarraian bakarrik: lanarekin batera, irakasleak emanen duen ko-ebaluazioaren orria beteta gehituko da. Ko-ebaluazioa gabe entregatzen diren lanak ez dira zuzenduko.

Ikasleek lan teorikoaren eta aurkezpenaren ebaluatzeko irizpideak ebaluazio errubrikan ikus ditzakete (5. eranskina).

IKASGAIA GAINDITZEKO (ebaluazio jarraian eta ez jarraian)

Ebaluazio jarraian

Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa da aurkezpena eta lana gainditzea. Ohizko deialdia gainditzen ez duten ikasleei, atal bat gaindituta izanez gero, atal horren nota ez-ohizko deialdirako gordeko zaie. Nota partzialak ez dira ikas-urte batetik bestera gordeko.

Lana: % 70

Aurkezpena: % 30

Ebaluazio ez jarraian

Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa da azterketa eta lana gainditzea. Ohizko deialdia gainditzen ez duten ikasleei, atal bat gaindituta izanez gero, atal horren nota ez-ohizko deialdirako gordeko zaie. Nota partzialak ez dira ikas-urte batetik bestera gordeko.

Lana: % 50

Azterketa: % 50

Inongo lanik entregatzen ez duten ikasleen nota Ez aurkeztua izanen da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Moodle-n jarriko diren irakurgaiak.

ARRIAGA, Mikel eta GARCÍA, Oihane (2007): "Ciclo de vida adolescente, minorías y proyecto de vida de calidad". IX Congreso Español de Sociología. Barcelona.

GARMENDIA, Maite (1999): "Respuesta educativa a niños y adolescentes con enfermedades crónicas y edad de escolarización obligatoria en la CAPV". Zerbitzuan, 36.

GOMEZ, Cristobal eta DIAZ, Cecilia (2009): "La juventud rural en el cambio de siglo: tendencias y perspectivas". Revista de estudios de juventud, 87

INE (2009): "Panorámica de discapacidad en España". Encuesta de discapacidad, Autonomía personal y situaciones de Dependencia 2008. Boletín Informativo del INE.

JAUREGI, Inmaculada (2002): "Una perspectiva cultural de la adicción". Gazeta de Antropología, 18 [http://hdl.handle.net/10481/7394].

LETURIA, F. Javier (2011): "Los derechos de las personas mayores". Oñati Socio-Legal Series, v.1, 8.

MANZANOS, César (1998): "Salir de prisión: la otra condena". Zerbitzuan, 35.

MORCILLO, Juana María (2012): "Discapacidad intelectual y violencia de género en mujeres inmigrantes: la multidiscriminación". Portularia, vol.XII, 2, 1-11.

ORTIZ, Luis (2004): "La opresión de minorías sexuales desde la inequidad de género". Política y cultura, 22.

WACQUANT, Loïs (2001): "Marginación urbana en el próximo milenio". Parias urbanos. Marginalidad en la ciudad a comienzos del milenio. Buenos Aires. Manantial.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

GARZIA, Joserra (2008): “Ahozko komunikazioa: eginak egin, badugu zer egin”. IVAP Administrazioa euskaraz aldizkaria, 62, 20-21.

LOPEZ, Ainhoa eta VARELA, Irantzu (2009): “Arazoen zuhaitza”. Garapenerako lankidetzaproiektu eraldatzaileak egiteko eskuliburua. Eusko Jaurlaritzaren or.78-95 eta 212-213.

Gehiago sakontzeko bibliografia

ARARTEKO (2007): “Lehentasun taldeak”. Eusko Legebiltzarrentzako urteko txostena. or. 209-486.

DE LA RED, Natividad (2003): Trabajo Social y demandas emergentes. Madrid. CCS.

TREVITHICK, Pamela (2002): Habilidades de comunicación en intervención social. Madrid. Narcea.

Aldizkariak

Boletín Drogomedia
Boletín Gizarte.doc
Boletín Gizarteratuz
Cuadernos de Trabajos Social
Cuadernos técnicos Zainduz
Revista CDD
Revista de Servicios Sociales y Política Social
Revista de Trabajo y Acción Social
Revista Zerbitzuan

Interneteko helbide interesgarriak

Aministía Internacional
Ararteko
Asociación Gitana Gao Lacho Drom
Barómetro social de España
Cáritas
Colegio General de Colegios Oficiales de Trabajo Social
Diputación Foral de Alava-Observatorio de Servicios Sociales
Diputación Foral de Gipuzkoa-Observatorio de Servicios Sociales
Emakunde
EUROSTAT
Fundación Paz y Solidaridad-Observatorio del Trabajo en la Globalización
Ikuspegiak-Observatorio de Asuntos Sociales. Observatorio de la inmigración
INE-Instituto Nacional de Estadística
Oberaxe-Observatorio del Racismo y la Xenofobia
Observatorio Social de España
Observatorio de la Infancia
SIIS-Fundación Eguía Careaga. Centro de documentación e investigación